

INPERIALISMOAREN GARAIA

Inperio koloniala:

Potentzia nagusi bakar baten menpean dagoen lurralde multzoa. Potentzia honi metropoli deritzen. XIX. mendean, nagusitasun ekonomikoa, teknikoa eta militarra baliatuz, Europako herrialderik aurreratuenek, nagusiki, Afrikako eta Asiako lurraldeak okupatu zituzten, eta inperio kolonialak sortu.

Kolonialismoa:

Herrialde edo lurralde bat atzerriko beste potentzia batek menperatzea. XIX. mendean, nagusitasun ekonomikoa, teknikoa eta militarra baliatuz, Europako potentziek, nagusiki, Afrikako eta Asiako lurraldeak menperatu zituzten.

Metropolia:

Koloniak dituen herrialdea. Europako potentzia kolonialei dagokien terminoa da. XIX. mendean, nagusitasun ekonomikoa, teknikoa eta militarra baliatuz, Europako potentziek, nagusiki, Afrikako eta Asiako lurraldeak kolonizatu zituzten.

Ustiapenerako koloniak:

Ustiapen ekonomikoa oinarritzen den kolonia mota. Kolonizatzaileek, okupazio-politika gauzatu eta gero, lurrak bereganatzen zituzten, bai sail handiak ereiteko bai meategiak ustiatzeko.

Jendeztatzeko koloniak:

Klimaren ezaugarriak, indigenen kopuru txikia edo aparteko aberastasunak zirela-eta, zuriak okupaturiko koloniak ziren. Kolonoak hara emigratu eta behin betiko gelditzen ziren. Metropoliak kolonien barne-gobernuak halako autonomia izatea onartzen zuen.

Protektoratua:

- ✓ Europarrek okupatu ondoren, estatu gisa antolatuta segitzen zuen kolonia mota; indigenek jarraitzen zuten gobernuan eta administrazioa bertakoa zen. Metropoliak gobernu paralelo bat ezartzen zuen, eta defentsa eta kanpo-politikaz arduratzen zen.
- ✓ Beste estatu baten babespean dagoen eta beste edozein herrialderekin izan ditzakeen erlazioak mugatuta dituen estatuaren egoera juridikoa.

Berlingo Biltzarra:

Afrikaren banaketan herrialde indartsuen interesen arteko gatazkaren ondorioz, 1885. urtean Berlinen egindako bilera. Bertan, arauak eta herrialde bakoitzaren menpeko eskualdeak finkatu zituzten eta, hartara, herrialde inperialistek Afrika banatu zuten.

Akulturazio:

Kultura batek, beste kultura batekin harremanetan jartzean, berezko ezaugarriak galtzea. Kolonizazio garaian, kolonizatzaileen bizimodua indigenen tradizioen ordeztatu nahian, eskoletan metropoliko hizkuntza, kultura eta ohiturak irakasten zituzten nagusiki.

Aliantza Hirukoitza:

1882. urtean Alemaniak, Austria-Hungariako Inperioak eta Italiak sinatutako ituna. Eraso frantses eta errusiarren aurrean elkar babestea zuen helburu.

Entente Hirukoitza:

1907. urtean Frantziak, Britainia Handiak eta Errusiak sinatutako ituna. Aliantza Hirukoitzari aurre egitea zuen helburu.

Gerra Handia:

Lehen Mundu Gerrari esaten zaio. 1914 eta 1918 bitartean izandako gerra, batik bat Europan egina. Gatazka potentzia inperialisten arteko lehiarengatik sortu zen Europan, eta munduko beste toki askotara hedatu zen.

Verdugo Gudu:

Lehen Mundu Gerran, Alemaniako eta Frantziako armaden arteko gerra luzea (Mosa ibaiaren alde bietara, 1916-1917). Guda latza izan zen eta hildakoen kopurua oso handia bi armadetan.

Brest-Litovskeko Ituna:

Batetik Alemania, Austria-Hungaria, Bulgaria eta Otomandar Inperioak eta bestetik Errusia sobietarrak sinatutako bake-ituna (Errusia, 1918ko martxoaren 3a). Honen bidez, Errusiak gerran parte hartzeari utzi zion.

Versaillesko Ituna:

Versaillesen sinatutako hainbat ituni emandako izena. 1919ko ekainaren 28an, aliatuek Alemaniari neurri zorrotzak ezarri zituzten: lurralde asko kendu, armada desegitera behartu eta gerrako kalteak ordainarazi zituzten.

Nazioen Sozietatea:

Lehen Mundu Gerraren amaieran, Wilson AEBetako presidentearen proposamenari jarraiki, sortutako erakundea. Honen helburua bakea ziurtatu, nazioarteko lankidetzak sustatu, itunak betetzea zaindu eta gatazkek diplomaziaren bitartez konpontzea izan zen.